

OSO GUNEKO ERAKASKERA
1993-94

ELHEKETA : ASTE HUNTAKO ELHEPIDA

- 1 - Zer dira nezuaren beraz huntak?
- 2 - Zer diote nekezariek nezuaz?
- 3 - Zer dio idazlariek?

II

ARO SOLAS *

Neguak beretarik egin behar ditu.

Agertu zauku azkenian elhur demuntre hori, danba, danba yauts-ahala erortzen zerutik, oro estaliz mihise xuri batekin, bere xuritasun biziak gure begiak itsutzen dituenak.

Gure gela berotik, berinetarik¹ barne, pollit da ikhustea nola lili xuri horiek dena estaltzen eta kukutzen dituen. Bainan oroitzen gira gaixo murruxoriez² bere bazkañoa ezin hatzemanaz nihondik, eta gero gosetuak arratsa iragan behar hotz ikharan hegatsen azpian.

Han dira, teillatu hegian barrandan hea noiz ikhusiko dutenez bere begiño biziakin hazkurri ezpiño bat; eta ikhuskkoa da nola zimizta bezain zalhu yausten diren, norbaitek, urrikaldurik, botatzen balinbadu ogi porroska³ ahurtara⁴ bat, eta zein lehiakara iresten dituzten aphurrak.

Eta zer erran basahuntz, basurde, azeri, otso, azkona eta bertzez, han oihan eta mendi kaskoetan bizi direnak elhurrez

inguratuak bizpahiru ilhabete, ezin haziz, arras nekez sabelaren galdeari arau eman beharra dena ardietsiz.

Negu beltz eta borhitzza denentzat pairamena da; mundu guziko izaiteentzat. Laborariek diote arras ona dela elhurreta eta hotza bere denboran, lugintzako mozkinak hobekitzen dituela, zeren eta bere etsai haundienak, mamutxa⁵ ñimiño kaltekor horiek denak funditzen dituelakotz.

Baditeke, ba. Bainan hirietan bizi girenentzat, sasoin hitsa da debru negu hau; eta zonbat gehiago enetzat bederen, gaztetasunak aspaldi ihes egin duetakotz gutarik; eta yakina da adinak odola epeltzearekin hozperak bilhakatzen gite. Ni eurik ba. Hitz dautzuet.

Bainan, bego, bego negua, egin ditzala beretarik, kurri jezala bere bidea, geroxago bere ilhundurak garhaituko ditu udaberri disdirantak, argiz eta edertasunez hedatuz bazter guziak, epeltasun ezian. Anartean gauden supazter xokoan gure bizkarrak zizeluaren⁶ gerizan.

* (La Voz de Navarra, 1933/1/18)

III ADITZ IKASKUNTZA.

31 Laborariek diote 32 Baditeke

33 Bilhakatzen gite 34 Hitz dauzue

31 UKAN. Conj. à 3^e pers. Indicatif présent

O. Si - C. I. Si. - Hari = a lui.

Nik diot = je le lui ai
Zuk diozue = vous le lui avez
Harek dio = il le lui a
Guk diozue = nous le lui avons
Zuek diozue = vous le lui avez
Heiek diote = ils le lui ont.

O. P. - C. I. Si = diokit, diokiozue etc

32. IZAN. Potentiel Présent.

Ni izan naiteke (nitake) = je peux être
Hi izan haiteke = tu peux être
Zu - " - zaitezke = vous pouvez être
Hura - " - daiteke (ditake) = il peut être
Gu - " - gaitezke = nous pouvons être
Zuek - " - zaitezkete = vous pouvez être
Heik - " - daitezke = ils peuvent être

Imparfait: ninteken, hinteken, zintezken, ziteken etc.

33 UKAN. Conj. trans. à 3^e pers. direct. Pr. pers. gu = nous

Indicatif présent • Pr. pers. gu = nous
Zuk gaituzue (gaituzue) = vous nous avez
Harek gaitu (giteu) = il nous a
Zuek gaituzue (gaituzue) = vous nous avez
Heik gaituzte (gaituzte) = ils nous ont

Conj. periph. Ikusten gaituzue = us nous voyez

Indicatif - Imparfait

Zuk ginduzen = vous nous aviez
Harek ginduen = il nous avait
Zuek ginduzen = vous nous aviez
Heiek ginduzten = ils nous avaient.
C. P. Ikusten ginduzen = vous nous voyiez.